
ZER LANDATU DAITEKE MAIATZEAN?

Maiatza hilabete ezin hobea da udako kultibo gehienak landatzeko. Izan ere, maiatzak landareak behar bezala hazi eta garatzeko berme handiagoa ematen digu aurreko hilabeteak baino, eguzki-orduak asko luzatzen baitira, tenperaturak gora egiten dute, izotza izateko arriskua desagertzen da, eguzkiak gero eta indar handiagoa du, eta, guzti honen ondorioz, gure barazketako lurra berotzen doa poliki-poliki.

Hementxe duzue maiatzean landatu daitezkeen espezieen zerrenda:

- Zerba
- Babarruna
- Apioa
- Alberjina
- Borraja
- Kuiatxo
- Kuia
- Tipula
- Ziaberba
- Marrubia
- Letxuga
- Artoa (erein)
- Meloia
- Porrua
- Luzokerra
- Piperra
- Errefautxo (erein)
- Erremolatxa
- Tomatea
- Leka
- Azenarioa (erein)

Eta, jakina, mota guztietako usaintsuak ere landatu daitezke, hala nola albaka, menda, perrexila, erromeroa, oreganoa edo ezkaia.